Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4804

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 28koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendariarena, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren menpe dauden hainbat administrazio-zentro 2011 eta 2012an energia elektrikoz hornitzeko kontratazioa Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari eskuordetzan emateko dena.

Elektrizitate Sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak energia elektrikoa hornitzea helburu duten jarduerak arautzen ditu, hain zuzen ere energia sortu, garraiatu, banatu, merkaturatu eta Europar Batasunaren barruko nazioarteko trukeen inguruko jarduerak, bai eta sistema elektrikoaren kudeaketa ekonomikoa eta teknikoa ere.

Lege horrek eta hori garatzeko arauek sisteman parte hartzen duten eragileen arteko harremanak arautzen dituzte, bai eta energia horren horniketa kontratatzeko prozedurak ere, eta zehatzago esanda, liberalizatutako merkatuan elektrizitateak izan behar duen prezioa eta ordain-sariak.

Bestetik, Sektore Elektrikoaren Legeak elektrizitatehornidura liberalizatzeko aukera eman du. Horren ondorioz, administrazioek energia iturri hori erostekotan, administrazio kontratazioari buruzko arauetan aurreikusitako prozedurei jarraiki erosi behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubidea jasotzen duen ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluaren eta lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 18.e artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, Baliabide Orokorren zuzendaritzari dagokio era zentralizatuan eskuratu behar diren ondasunak eta zerbitzuak erostea eta hornitzea, kudeaketa zentralizatua duten eraikinetarako badira.

Gainera, abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 18.a artikuluak zuzendaritza horren esku uzten du era zentralizatuan eskuratu behar diren ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak proposatzea.

Une honetan, era zentralizatuan kudeatzekoak diren Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eraikinetan, Justizia eta Herri Administarazio Sailaren gainerako eraikinetan eta Eusko Jaurlaritzako eta haren erakun-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4804

RESOLUCIÓN de 28 de julio de 2010, de la Directora de Servicios del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de delegación en la Consejera de Justicia y Administración Pública, de la contratación del suministro de energía eléctrica para los años 2011 y 2012 en los centros administrativos dependientes del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, regula las actividades destinadas al suministro de energía eléctrica, consistentes en su generación, transporte, distribución, comercialización e intercambios intracomunitarios internacionales, así como la gestión económica y técnica del sistema eléctrico.

La mencionada Ley y sus normas de desarrollo regulan las relaciones entre los diversos agentes del sistema y los procedimientos para la adquisición de dicho suministro energético, y en concreto sobre los precios y remuneraciones del mismo en el mercado liberalizado.

Por otra parte, la Ley del Sector Eléctrico ha permitido la liberalización del suministro de electricidad, lo cual implica que la adquisición de dicha fuente de energía por parte de las administraciones debe realizarse a través de los procedimientos previstos en la normativa sobre contratación administrativa.

A tenor del Capítulo V y de la Disposición Adicional Primera del Decreto 136/1996, de 5 de junio, por el que se aprueba el régimen de contratación administrativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el artículo 18.e del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública, corresponde a la Dirección de Recursos Generales la contratación en edificios de gestión centralizada de las materias o servicios de utilización generalizada que hayan sido atribuidos a la Dirección de Recursos Generales.

También el artículo 18.a del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, otorga a la mencionada Dirección la propuesta de desarrollo de los procedimientos para la contratación de bienes y servicios de adquisición centralizada.

En el momento actual, se considera que la contratación de manera centralizada del suministro de energía eléctrica de los edificios de gestión centralizada de competencia de la Dirección de Recursos Generales,

de autonomiadunetan energia elektrikoaren horniketa era zentralizatuan kudeatzea lagungarria izango da zerbitzuak hobeto kudeatzeko eta gastu publikoa arrazionalizatzeko.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak aukera ematen du Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatua ez duten beste eraikin batzuetara ere hedatzeko. Eskumenak hedatze hori hainbat modutara egin daiteke: hitzarmena sinatuz, administrazio-baldintza partikularreko agirietan berariaz aurreikusiz edo Herri Administrazioen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako formulen bidez.

Aipatutako eremuan energia elektrikoaren horniketa kontratatzeko formula egokia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan jasotako eskumenen eskuordetzea dugu; artikuluak honela dio:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendeko ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

472/2009 Dekretuaren 4.2.c artikuluak Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari ematen dizkio kontrataziorako eskumenak.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 8.1.b artikuluak esaten du, lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 5.000.000 eurotik beherakoa duten kontratuetan Saileko kontratazio-organo gisa jardutea Zerbitzu zuzendariari dagokiola. Horiek horrela,

EBATZI DUT:

1.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari ematea eskuordetzan Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren menpe dauden hainbat administrazio-zentrotako 2011 eta 2012rako energia elektrikoaren (goi eta behe tentsiokoaren) horniketa kontratatzeko eskumena. Zentro horien zerrenda ebazpen honen eranskinean jaso da.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak jasotzen dituen eta kontratuari ezartzekoak diren gai hauetara zabalduko da eskuordetzea:

de los demás edificios del Departamento de Justicia y Administración Pública y de los edificios adscritos al resto de los Departamentos del Gobierno Vasco y sus OO.AA. contribuye a la mejora de la gestión de los servicios, así como a la racionalización del gasto público.

El artículo 19 del Decreto 136/1996, anteriormente mencionado, permite la extensión de las competencias de la Dirección de Recursos Generales a otros edificios distintos de los de gestión centralizada. Esta extensión se instrumentaliza por medio de convenio, previsiones específicas en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o de las fórmulas previstas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La fórmula apropiada para llevar a cabo de manera centralizada la contratación del suministro de energía eléctrica en el ámbito antes señalado, es la prevista para las delegaciones de competencias en el artículo 13.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que dispone lo siguiente:

«1.– Los órganos de las diferentes administraciones públicas podrán delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma administración, aún cuando no sean jerárquicamente dependientes, o de aquellas entidades de derecho público vinculadas o dependientes de aquéllas.»

Considerando las competencias que en materia de contratación atribuye el artículo 4.2.c del Decreto 472/2009, a la Consejera de Justicia y Administración Pública,

Considerando el artículo 8.1.b del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en virtud del cual corresponde a la Directora de Servicios actuar como órgano de contratación del Departamento en los expedientes cuyo presupuesto base de licitación no exceda de 5.000.000 de euros,

RESUELVO:

1.– Delegar en la Consejera del Departamento de Justicia y Administración Pública la competencia para la contratación para los años 2011 y 2012 del suministro de energía eléctrica (alta y baja tensión) en los edificios dependientes del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, que figuran en el anexo que acompaña a la presente Resolución.

La delegación se extenderá a las siguientes materias previstas en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, que sean de aplicación al contrato:

– Kontratua prestatzea (II. liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioak kontratua aldatu, iraungi, laga eta azpikontratatzeko dituen eskumenak, IV. liburuko I. tituluko I. kapituluan arautzen direnak, eta bereziki hornidura-kontratuetarako IV. liburuko II. tituluko IV. kapituluan aurreikusten direnak.

– Kontratuaren formalizazioa (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

2.– Kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta bereziki, egindako zerbitzuen betetzeari onespena emateko eta ordainketa agintzeko eskumenak, eskumena ematen duen organoaren baitan jarraituko dute.

3.– Eskuordetze hau izenpetu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 28a.

Zerbitzu zuzendaria,
PALOMA USATORRE MINGO.

– Preparación del contrato (Libro II).

– Adjudicación del contrato (Libro III, Título I, Capítulo II).

– Prerrogativas de la Administración, modificación, extinción, cesión y subcontratación previstas con carácter general en el Libro IV, Título I, Capítulo I, y con carácter particular para los contratos de suministro en el Libro IV, Título II, Capítulo IV.

– Formalización del contrato (Libro III, Título I, Capítulo I).

2.– El resto de las competencias que corresponden al órgano de contratación, y en particular la facultad de dar la conformidad a la ejecución a los servicios prestados y ordenar el abono de los mismos, permanecerán en el órgano delegante.

3.– La presente delegación entrará en vigor a partir del día siguiente de su firma.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 2010.

La Directora de Servicios,
PALOMA USATORRE MINGO.

ERANSKINA/*ANEXO*

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio saila
Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes

Behe tentsioko lokalak
Locales baja tensión

Helbidea *Dirección*	Udalerria *Termino municipal*
Portubidea 925, behea, 1	Lemoiz
Elkano 3, behea, 4	Bilbao
Merkataritzako kaia, z/g, behea, 1	Bermeo
Merkataritzako kaia, 12, behea, 1	Bermeo
Benanzio Nardiz kaia, 27, behea, 5	Bermeo
Merkataritzako kaia, 20, behea, 1	Bermeo
Portua, 4-1, behea	Getaria
Portua 10, behea, 2	Hondarribia
Portua 28, behea, 7	Getaria
Kaiko pasealekua 23, behea, 2	Donostia-San Sebastián
Portua, 2, behea, 1	Mutriku
Portua, 2, behea, 5	Mutriku
Lasta plaza, prox 1, behea, 1	Donostia-San Sebastián
Kaiko pasealekua 23, 1.a	Donostia-San Sebastián
Antilletako pasabidea, 14, 1.a ezk.	Vitoria-Gasteiz
Prim kalea 10, behea, 2	Donostia-San Sebastián
Henao 9, behea, 4	Bilbao
Agirrelanda 10, behea, 1	Vitoria-Gasteiz
Olano 13, behea, 1	Bilbao
Labasture 22, behea, 5	Plentzia
Merkataritzako kaia, 3, behea, 8	Bermeo
Nardiz'tar Benanzio kaia, 27, behea	Bermeo
Ezpeleta 36-1, behea, 2	Lekeitio
Sabin Arana kalea 11, behea, 5	Ondarroa
Itsasaurre kalea 2-1, behea, 4	Ondarroa
Itsasaurre kalea 2-1, behea, 6	Ondarroa